



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
 ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

PROGRAMA	PROGRAMA
1212 ZERBITZU OROKORRAK	1212 SERVICIOS GENERALES
ARDURADUNA	RESPONSABLE
05 OGASUNA ETA FINANTZAK	05 HACIENDA Y FINANZAS
ADMINISTRAZIOKO ETA ZERBITZU OROKORRETAKO SAILBURUORDETZA	VICECONSEJERÍA DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS GENERALES

HELBURUA

1. KUDEAKETA ZENTRALIZATUEN ERAIKINAK ETA BERE AZPIEGITURAK HERRI ADMINISTRAZIOAREN FUNTZIONAMENDUAREN ARABERA EGOKITZEA
2. HIGIEZINEN KUDEAKETA TEKNIKOA ETA USTIAPENA
3. ZERBITZU KOMUNETAKO ESKAINTZAREN HOBETUNTZA
4. KUDEAKETA ZENTRALIZATUTAKO ERAIKINEI EZARRITAKO SEGURITASUN PLANA BETETZEA
5. ARGITALPEN ZERBITZU NAGUSIA MODERNIZATZEN JARRAITZEA
6. "BIBLIOTEKAK" SAREA- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOKO LIBURUTEGI SISTEMA - EZARTZEA
7. JARRAITZEA ARTXIBOAK KUDEATZEKO SISTEMA INFORMATIKOA EZARTZEN ADMINISTRAZIO ATALETAN, ETA WEB-AREN BIDEZ ARTXIBO OROKORRERA SARTZEKO AUKERA JARTZEA
8. ESKEINITAKO IBILGAILUEN ZERBITZUAK HOBETZEA
9. IBILGAILUEN ZERBITZUAREN KUDEAKETA HOBETZEA

BETETZE MAILA

1. KUDEAKETA ZENTRALIZATUEN ERAIKINAK ETA BERE AZPIEGITURAK HERRI ADMINISTRAZIOAREN FUNTZIONAMENDUAREN ARABERA EGOKITZEA

Donostiako Udalean aurkeztu da Eusko Jaurlaritzak bere Loiolako Erriberen partzelarako (Donostia) proposatzen duen eraikinaren aurreproiektua.

Era berean, gauzatu dira Adifekin egin beharreko kudeaketak eraikinak trenbidetik zer distantziatara egon behar duen aztertzeko.

OBJETIVO

1. ADECUACIÓN DE LOS EDIFICIOS DE GESTIÓN CENTRALIZADA Y SUS INFRAESTRUCTURAS AL FUNCIONAMIENTO DE LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
2. GESTIÓN TÉCNICA Y EXPLOTACIÓN DE LOS INMUEBLES
3. MEJORA EN LA PRESTACIÓN DE LOS SERVICIOS COMUNES
4. CUMPLIMIENTO DEL PLAN DE SEGURIDAD ESTABLECIDO PARA LOS EDIFICIOS DE GESTIÓN CENTRALIZADA
5. CONTINUAR CON LA MODERNIZACIÓN DEL SERVICIO CENTRAL DE PUBLICACIONES
6. IMPLEMENTACIÓN DE LA RED "BIBLIOTEKAK": SISTEMA DE BIBLIOTECAS DE LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI
7. CONTINUAR LA IMPLANTACIÓN DEL SISTEMA INFORMÁTICO DE GESTIÓN DE ARCHIVOS EN LAS UNIDADES ADMINISTRATIVAS Y APERTURA DEL ACCESO AL ARCHIVO GENERAL A TRAVÉS DE LA WEB
8. MEJORA DE LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE PARQUE MÓVIL
9. MEJORA EN LA GESTIÓN DEL SERVICIO DE PARQUE MÓVIL

GRADO DE CUMPLIMIENTO

1. ADECUACIÓN DE LOS EDIFICIOS DE GESTIÓN CENTRALIZADA Y SUS INFRAESTRUCTURAS AL FUNCIONAMIENTO DE LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

Se ha presentado al Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián Anteproyecto del edificio que EJ/GV propone en su parcela de Riberas de Loiola, Donostia.

Paralelamente se han realizado las oportunas gestiones con Adif con el fin de analizar las distancias de la edificación al trazado de la vía férrea.



Partzelaren jasotze topografikoa ere egin da, eraikin-proposamena txertatzeko diseinuaren oinarri gisara.

Hainbat eraberritze-jarduera gauzatu dira Lakuako eraikineko ekitaldi-aretoan, jarduera-mota gehiagorako gaitasuna izan dezan, eta aukera gehiago eduki ditzan ikus-entzunezko azpiegiturei dagokienez; horrez gainera, altzariak aldatu dira, eserlekuak birtapizatu dira eta lurzorua estaldurak aldatu dira.

Maximo Agirre kaleko lokaletako eraberritze-lanen 2. fasea gauzatu da, bainugelen 1. gunea moldatuz.

Jarduera garrantzitsuak egin dira Lakua 1eko estalduran; besteak beste, eraikinaren hainbat solairutan egurrez eta beiraz eginiko hainbat osagai aldatu dira, iazko lanarekin jarraituz. Hori guztia berogalerak eta infiltrazioak murrizteko helburuarekin egin da, instalazioen barruko erosotasun-maila hobetze aldera.

Lakua 1 ataria gutuz eraberritzeko lanak hasi dira.

Lakua 2 eraikineko kudeaketa zentralizatuko 2. eta 3. aretoak eraberritu dira, ikus-entzunezko baliabide berriak erantsita.

Lakuako korridore eta atarietan zeuden argietako asko LED motako lanparez ordezkatu dira, energia gehiago aurrezteko.

Donostiako Intxaurrendoko eraikinean, 1. solairua eraberritu da, beste zerbitzu batzuk hartzeko moduan jartzeko.

Gasteizko Samaniego eta Ramiro de Maeztu kaleetako eraikinetan energia-eraginkortasuneko ziurtagiriak prestatu dira.

Hainbat eraikinetako toki jakin batzuetan moketa berriak jarri dira, oso higatuta eta zahartuta baitzeuden.

Lakua II eraikineko estalkian bankada bat instalatu da, hozte-sistema berri bat jarri ahal izateko.

Ikus-entzunezko baliabide berriak instalatu dira hiru lurraldeetako prentsa-aretoetan.

Hainbat neurri hartu dira segurtasunaren arloan ere, zenbait eraikinetako CCTV sistemarako bideokamerak instalatuta.

Kontagailu elektrikoak instalatu dira, on line kontsumo-irakurketak egin ahal izateko eta, horrela, eraikinetako energia-eraginkortasuna hobetzeko.

Bilboko Burtsaren eraikineko 4. solairuan estaldurak eta klimatizazioa hobetzeko hainbat neurri hartu dira.

Matrikula-irakurgailuak instalatu dira Lakuako aparkalekuetarako sarbideetan, ibilgailuen kontrolerako segurtasuna hobetze aldera.

También se ha realizado el levantamiento topográfico de la parcela como base de diseño para el encaje de la propuesta de edificio.

Se han realizado diversas actuaciones de reforma en el salón de actos del edificio de Lakua con el fin de hacerlo más polivalente y dotarlo de mayores posibilidades en las infraestructuras de audiovisuales, modificando el mobiliario, retapizando las butacas y cambiando los revestimientos de suelos.

Se ha realizado la 2ª fase de la reforma de los locales de Máximo Aguirre adaptando el 2. núcleo de aseos.

Se han realizado dos importantes actuaciones a nivel de la envolvente en Lakua 1 como continuación a la realizada el año anterior consistente en la sustitución de carpinterías y vidrios en diversas plantas del edificio. Todo ello orientado a reducir las pérdidas de calor, las infiltraciones y lograr un mayor nivel de confort en el interior de las instalaciones.

Se ha acometido la reforma integral del Vestíbulo de Lakua I.

Se han reformado las salas 2 y 3 de Lakua 2, salas de gestión centralizada, incorporando nuevos medios audiovisuales a las mismas.

Se han sustituido gran parte de las luminarias existentes en pasillos y vestíbulos de los edificios de Lakua por lámparas tipo Led, al objeto de obtener mayores ahorros energéticos.

Se ha reformado la planta 1ª del edificio de Intxaurrendoko en Donostia con el fin de habilitarlo para acoger nuevos servicios.

Se han redactado los certificados de eficiencia energética en los edificios de Samaniego y Ramiro de Maeztu en Vitoria-Gasteiz.

Se han hecho varias actuaciones de sustitución de moquetas en diversas zonas de los edificios al presentar un alto grado de desgaste y envejecimiento.

Se ha realizado la instalación de una bancada en la cubierta de Lakua II para la ubicación de un nuevo grupo de frío.

Se han instalado nuevos medios audiovisuales en las salas de prensa de los tres territorios.

Se han realizado diversas actuaciones en materia de seguridad instalando videocámaras para los sistemas de CCTV de diversos edificios.

Se han instalado contadores eléctricos con el fin de realizar lecturas de los consumo on line, dentro del objetivo de obtener una mayor eficiencia energética de los edificios.

Se han realizado diferentes actuaciones a nivel de revestimientos y de climatización en la planta 4ª del edificio de la Bolsa en Bilbao.

Se han instalado lectores de matrículas en los accesos a los aparcamientos de Lakua con el fin de aumentar la seguridad en el control de los vehículos.



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

Hainbat eraberritze-lan gauzatu dira IVAPek baliatzen dituen areto eta ikasgeletan.

Hainbat eraberritze-lan gauzatu dira Donostiako Andia eraikineko 7. solairuan, bai eta Bilboko Gran Vía kaleko eraikineko behe-solairuan ere.

Lakua 1eko I. eskailera eraberritzeko lehen fasea egin da.

Hainbat lan egin dira eraikinetako estalduretan, oro har, asko erabiltzearen ondorioz beharrezkoa izanik.

Hainbat gairi buruzko 18 ikerlan egin dira, gauzatatuko edozein motako ekintza baino lehen.

10 txosten egin dizkiegu gure lankidetzak eskatu duten hainbat zerbitzuentzako aholkularitza gisara.

2. HIGIEZINEN KUDEAKETA TEKNIKOA ETA USTIAPENA

Espazioak ezarri eta berrantolatzeko ikerlanaren barruan, 600 lanpostu aldatu dira, baita dagozkien lekualdatzeak eta sare-, ahots-eta datu-moldaketak egin ere.

Hori guztia egindako 112 ikerlanen ondorioa izan da.

Energia-gastua eta lehengaien kontsumoa ingurumen-irizpideen arabera kontrolatu eta hobetzeari dagokionez, kudeaketa zentralizatuko 12 eraikinetan lan egin da.

Segurtasunaren, erosotasunaren eta ekonomiaren irizpideak aintzat hartuta, kudeaketa zentralizatuko 13 eraikinetan 12.500 analisi-gune aztertu dira eta urrutitik kudeatutako 145 alarma, goi-lehentasunekoak, kontrolatu dira.

ISO 140001 ikuskapenak egin dira hiru eraikinetan.

Guztira, mantentze prebentiboko 4.589 jarduera egin ditugu, eta mantentze zuzentzaileko 2.390.

48 espediente izapidetu dira kanpoko laguntza teknikoetan eta baliabide propioetan Mantentze Integralaren Planaren kudeaketan.

Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea behar bezala betetzen dela bermatzeko jarraipen- eta kontrol-jarduerari dagokienean, kanpoko 50 enpresa eta 350 langile izan dira horien xede.

3. ZERBITZU KOMUNETAKO ESKAINTZAREN HOBETUNTZA

Baliabide Orokorren Zuzendaritzako kontratazio-mahaiak 328 kontratazio-espediente izapidetu ditu obren, horniduren eta zerbitzuen gainean; horietatik 254 kontratu txikiak izan dira, eta gainerako 74ak beste kontratu-mota batzuetakoak

Erosketak, funtsean, bide telematikotik kudeatu dira hornitzaileen atariaren eta erosketen eta hornikuntzen

Se ha realizado reformas de varias salas/aulas de formación para el IVAP.

Se han realizado diversas reformas en la 7ª planta del edificio Andia de Donostia-San Sebastián, así como en la planta baja del edificio de Gran Vía en Bilbao.

Se ha realizado la primera fase de la reforma de la escalera I de Lakua I.

Se han realizado diferentes actuaciones a nivel de revestimientos en general en los edificios consecuencia del uso intensivo al que se ven sometidos.

Se han realizado 18 estudios de diferente temática previos a cualquier tipo de actuación a realizar.

Se han realizado 10 informes a como asesoramiento a diferentes servicios que han solicitado nuestra colaboración.

2. GESTIÓN TÉCNICA Y EXPLOTACIÓN DE LOS INMUEBLES

Dentro del estudio de implantación y reordenación de espacios, se han modificado 600 puestos de trabajo con sus correspondientes traslados y adecuaciones de red, voz y datos.

Todo ello consecuencia de 112 estudios realizados.

Dentro del control y optimización del gasto energético y de consumo de materias primas con criterios medioambientales, se ha trabajado sobre 12 edificios de gestión centralizada.

Atendiendo a criterios de seguridad, confort y economía, en los 13 edificios de gestión centralizada, se han inspeccionado 12.500 puntos de análisis y se han controlado 145 alarmas telegestionadas de alta prioridad,

Se han realizado las Auditorias ISO 140001 en tres edificios.

Se han realizado un total de 4.589 actuaciones de mantenimiento preventivo y 2.390 de mantenimiento correctivo.

Se han tramitado 48 expedientes de Asistencias Técnicas externas y recursos propios en la Gestión del Plan de Mantenimiento Integral.

En el seguimiento y control de cumplimiento de la Ley de Prevención de Riesgos Laborales en relación con las empresas externas han sido afectadas 50 empresas y 350 los trabajadores afectados.

3. MEJORA EN LA PRESTACIÓN DE LOS SERVICIOS COMUNES

Por la Mesa de contratación de la Dirección de Recursos Generales se han tramitado 328 expedientes de contratación relativos a obras, suministros y servicios, de los cuales 254 han correspondido a contratos menores, y 74 al resto de contratos.

La gestión de Compras se ha realizado básicamente por vía telemática a través del portal de proveedores y



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

subhome-aren bidez; bezeroekin zein hornitzaileekin izan ditugu hartu-emanak. 30 hornitzaileekin eta eragindako 15 sail eta erakunde autonomorekin jardun dugu lankidetzan. 30 hornitzaileekin eta eragindako 15 sail eta erakunde autonomorekin jardun dugu lankidetzan.

Erosketa-katalogoa berrikusi da, salgaiak sortzeko irizpideak finkatu dira, baita horien deskribapena egiteko zein katalogaziorako irizpideak ere.

180 enpresa kontratatu ditugu kanpo-zerbitzuak behar bezala ematen direla bermatzeko.

Korrespondentzia-bulegoak, gutxi gorabehera, 45.000 mezu-zerbitzu gauzatu ditu, eta 1,15 milioi gutun maneiatu

Geure bitartekoekin argitaratutako inprimakiei dagokienean, 3,6 milioi inprimaki baino gehiago argitaratu ditugu, eta, kopiagintza-atalean, 2,1 milioi fotokopia egin ditugu.

Emandako zerbitzu komunetan 2.449 kontabilitate-agiri eta 2.817 faktura izapidetu ditugu; Baliabide Orokorrerentzako 10 zerbitzuri eragin diete horiek.

4. KUDEAKETA ZENTRALIZATUTAKO ERAIKINEI EZARRITAKO SEGURTASUN PLANA BETETZEA

Segurtasun-zerbitzuak 11 sute-zentral, 7 intrusio-zentral eta sarbidea kontrolatzeko 14 puntu kudeatu ditu.

35 prozedura operatibo, 12 alarma-prozedura eta erakundeen arteko 12 prozedura gauzatu ditugu zerbitzuaren jardura kudeatzeko

Segurtasun-zerbitzuarekin lotutako 1.129 gertakari hauteman eta kudeatu ditugu.

Lan Arriskuen Prebentzioko Zerbitzuarekin koordinatuta, 13 ebakuazio-simulazio egin ditugu segurtasuna zerbitzu horren esku uzten duten kudeaketa zentralizatutako beste hainbat eraikinetan.

40 zainzailek eta segurtasuneko 2 laguntzailek osatu dute zerbitzu honetako giza baliabideen multzoa.

Giza baliabideak eta baliabide materialak berrantolatu ditugu Segurtasun Zerbitzuaren eraginkortasuna hobetze aldera.

5. ARGITALPEN ZERBITZU NAGUSIA MODERNIZATZEN JARRAITZEA

Teknikariek hainbat prestakuntza-ikastaro egin dituzte zerbitzu egokia ematen dutela bermatzeko.

EAEko Herri Administrazioaren argitalpen-atariaren funtzionamendua sendotu dugu, argitalpenen PDFetarako berrehun esteka baino gehiago ezarrita.

Gure standak jarri ditugu Bilbon, Donostian eta Durangon antolatutako hainbat azokatan.

de la subhome de compras y aprovisionamientos, interactuando tanto con los clientes como con los proveedores. Se ha colaborado con 30 proveedores y con 15 Departamentos y Organismos Autónomos afectados.

Se ha continuado en la tarea de revisar el catálogo de compras, fijando criterios para la creación de artículos, descripción de los mismos y la propia catalogación.

Se han contratado 180 empresas para el aseguramiento de la prestación de servicios externos

Por la oficina de Correspondencia se han gestionado alrededor de 45.000 servicios de mensajería y manipulado 1,15 millones de cartas.

Respecto a la edición de impresos con medios propios, se han superado la cifra 3,6 millones de impresos, y la actividad de reprografía de gran tirada, se ha materializado en 2,1 millones de copias.

Los servicios comunes prestados han dado lugar a la tramitación de 2.449 documentos contables y 2.817 facturas; habiendo afectado a 10 servicios dentro de la Dirección de Recursos Generales.

4. CUMPLIMIENTO DEL PLAN DE SEGURIDAD ESTABLECIDO PARA LOS EDIFICIOS DE GESTIÓN CENTRALIZADA

Por el servicio de Seguridad se han gestionado 11 Centrales de Incendios, 7 Centrales de Intrusión y 14 puntos de control de accesos.

La actividad del Servicio se ha gestionado mediante 35 procedimientos operativos, 12 de alarma y 12 procedimientos entre Organismos.

Se han identificado y gestionado 1.129 incidencias relacionadas con el servicio de seguridad.

En coordinación con el Servicio de Prevención de Riesgo Laborales se han realizado 13 simulacros de evacuación en otros tantos edificios de gestión centralizada en los que este servicio tiene la competencia de seguridad.

Los recursos humanos disponibles en este servicio han sido 40 vigilantes y 2 auxiliares de seguridad.

Se han revisado y reorganizado de los recursos humanos y medios materiales en orden a mantener y mejorar la eficiencia del Servicio de Seguridad.

5. CONTINUAR CON LA MODERNIZACIÓN DEL SERVICIO CENTRAL DE PUBLICACIONES

El personal técnico ha asistido a diferentes cursos de formación al objeto de garantizar un servicio adecuado.

Se consolidado el funcionamiento del portal de publicaciones de la Administración Pública de la CAE, habiéndose establecido más de doscientos enlaces a PDF de publicaciones.

Se ha acudido a ferias con stand propio en Bilbao, Donostia, y Durango.



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

Argitaerak horietan gure argitalpen-funtsa sustatze aldera, bi katalogo argitaratu dira, bai paperean eta bai PDF formatuan ere, Argitalpenen ataritik deskargatu ahal izateko.

EAEko Administrazio Publikoaren argitalpen-jardueraren araudia eguneratzeari dagokionez, hori argitalpen elektronikora egokitzeko, lehen zirriborro bat prestatu da.

6. "BIBLIOTEKAK" SAREA- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOKO LIBURUTEGI SISTEMA - EZARTZEA

Argitalpen berriekin zabaldu dira funtsak eta sarearen kudeaketarako aplikazioaren berriak egin dira.

Prozedura Orokorreko eta Katalogaziorako Eskuliburuak eguneratu dira, prozedura-sistema berrietara moldatuz.

340 erabiltzaile berri eman dute izena "Bibliotekak" sarean.

Hainbat bisitaldi gidatu antolatu dira Bibliotekara, eta erabiltzaileentzako prestakuntza-hitzaldiak egin dira.

Era berean, 380 jarraitzaile lortu ditu horren TWITTER kontuak.

7. JARRAITZEA ARTXIBOAK KUDEATZEKO SISTEMA INFORMATIKOA EZARTZEN ADMINISTRAZIO ATALETAN, ETA WEB-AREN BIDEZ ARTXIBO OROKORRERA SARTZEKO AUKERA JARTZEA

Fitxategiak kudeatzeko aplikazioak instalatu ditugu 30 bulego berritan.

32.078 dokumentu-kutxa sartu ditugu artxibo orokorrean

241.090 erregistro berri sartu ditugu fitxategiak kudeatzeko aplikazioan

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailean, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailean, Osasun Sailean zein Emakunden sistema hori erabiltzen duten pertsonen prestakuntza-lanekin jarraitu dugu

Dokusi proiektuaren barruan, 20 lan-bilera egin dira. Halaber, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin lankidetzan jardun gara prozedurak doitzeko lanean, bai eta artxibategiko aplikazioaren erabilerari buruzko prestakuntzan ere.

8. ESKEINITAKO IBILGAILUEN ZERBITZUAK HOBETZEA

2014an zehar, B eta C motetako 256 ibilgailuri egindako mantentze-lanen jarraipena egin dugu kilometro- eta denbora-sistema baten bidez.

Al objeto de promocionar el fondo editorial en las ferias a las que se ha asistido, se han editado dos catálogos, tanto en soporte papel, como en PDF, al objeto de que sea descargable desde el portal de Publicaciones.

En relación a la actualización de la normativa reguladora de la actividad editorial en la Administración Pública de la CAE para adaptarla a la edición electrónica, se elaborado un primer borrador.

6. IMPLEMENTACIÓN DE LA RED "BIBLIOTEKAK": SISTEMA DE BIBLIOTECAS DE LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

Se han ampliado fondos con nuevas publicaciones y se ha realizado nuevos desarrollos de la aplicación de gestión de la Red.

Se han actualizado los Manuales de Procedimientos Generales y de Catalogación adaptándolos a los nuevos sistemas procedimentales.

Se han dado de alta como nuevas usuarias de la Red "Bibliotekak" 340 personas.

Se han organizado múltiples visitas guiadas a la Biblioteca, así como, impartido charlas de formación al personal usuario.

También se cuenta con 380 personas seguidoras en TWITTER.

7. CONTINUAR LA IMPLANTACIÓN DEL SISTEMA INFORMÁTICO DE GESTIÓN DE ARCHIVOS EN LAS UNIDADES ADMINISTRATIVAS Y APERTURA DEL ACCESO AL ARCHIVO GENERAL A TRAVÉS DE LA WEB

Se ha instalado la aplicación de gestión de archivos en 30 nuevas oficinas.

Se han incorporado 32.078 cajas de documentos en el Archivo General.

Se han incorporado 241.0900 nuevos registros en la aplicación de Gestión de Archivos.

Se ha continuado con la formación de personas usuarias del sistema, pertenecientes a los departamentos de Empleo y Políticas Sociales; Educación, Política Lingüística y Cultura; Salud y Emakunde.

Dentro del Proyecto Dokusi, se ha asistido a 20 sesiones de trabajo. Asimismo, se ha colaborado con otros Departamentos del Gobierno Vasco en el ajuste de los procedimientos, así como en la formación en el uso de la aplicación de archivo.

8. MEJORA DE LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE PARQUE MÓVIL

Durante 2014 se ha hecho el seguimiento del mantenimiento de 256 vehículos pertenecientes a las clases B y C mediante un sistema de kilometraje y tiempo.



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

D motako 273 ibilgailuren aldizkako ikuskapenen jarraipena egin dugu

532 ibilgailuren erabilpen-mailari buruzko jarraipena egin dugu, hau da, ibilgailu-mota guztiena, D bereziak motarena izan ezik.

B eta C motetako ibilgailuen kopurua egokitu dugu, eta 256 ibilgailu behar direla erabaki.

9. IBILGAILUEN ZERBITZUAREN KUDEAKETA HOBETZEA

B eta C motetako 256 ibilgailuren kostu osoa erkatu dugu hileru.

Ibilgailu-parkeko B eta C motetako 256 ibilgailuen kilometroko batez besteko kostua aztertu dugu.

Bertako tailerrean 1.681 lan-agindu izan ditugu.

Kanpoko konponketetarako 68 lan-aginduren jarraipena egin eta balioetsi egin ditugu.

Se ha hecho el seguimiento de las inspecciones periódicas de 273 vehículos de clase D.

Se ha efectuado el seguimiento del grado de utilización de 532 vehículos, es decir, de todos los vehículos excepto de los de clase D especiales.

Se ha adecuado el dimensionamiento del número de vehículos de disposición clase B y C, estableciéndolo en 256 vehículos.

9. MEJORA EN LA GESTIÓN DEL SERVICIO DE PARQUE MÓVIL

Se ha efectuado el cotejo mensual del conjunto de gastos de 256 vehículos de clase B y C.

Se ha analizado el coste kilométrico medio de los 256 vehículos de clase B y C del Parque Móvil.

El nivel de ocupación del taller propio ha sido de 1.681 órdenes de trabajo.

Se ha hecho el seguimiento y la valoración de 68 órdenes de trabajo de reparaciones externas.



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

PROGRAMA	PROGRAMA
1214 INFORMATIKA ETA TELEKOMUNIKAZIOAK	1214 INFORMÁTICA Y TELECOMUNICACIONES
ARDURADUNA	RESPONSABLE
05 OGASUNA ETA FINANTZAK	05 HACIENDA Y FINANZAS
HERRI ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZU OROKORRETAKO SAILBURUORDETZA	VICECONSEJERÍA DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y SERVICIOS GENERALES

HELBURUA

1. EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA ERAKUNDE AUTONOMOETAKO INFORMAZIO SISTEMAK EUSKARRITZEA, MANTENTZEA ETA HOBETZEA, EUSKO JAURLARITZAK EJIE-RI AGINDUTAKO KUDEAKETA OROKORRAREN ESPARRUAN
2. TELEKOMUNIKAZIOETAKO SEINALEAK ERAMAN ETA HEDATZEKO ZERBITZUA EMAN ETA BERMATZEA, EUSKO JAURLARITZAK ITELAZPI SOZIETATEARI EGINDAKO KUDEAKETA AGINDUAREN BARRUAN
3. EUSKO JAURLARITZAKO ADMINISTRAZIO SARE KORPORATIBOAREN KOMUNIKAZIO ZERBITZUA EMAN ETA BERMATZEA
4. INFORMATIKA POLITIKA BETETZEA, PROIEKTU ETA PROZESU KOMUN EDO HORIZONTALAK ETA HORIEN HEDAPENA KOORDINATUTA

BETETZE MAILA

Txosten hau Sail eta entitate publikoen arduradunek beraien eskumenak betetzeagatik onartutako eginkizunaren emaitza da: herritarrei kontuak ematea; politika publikoei buruz informatzea eta emaitzen berri ematea, eta edozein azterketaren menpe egotea informazioaren egokitasuna egiaztatzeko.

Gardentasunaren eta kontuak ematearen atal garrantzitsu bat aurrekontu-prozesuaren inguruan ematen da. Aurrekontuei buruz emandako informazioa aipagarria eta ulergarria izan behar dela eskatzen du Gobernu onak. Legebiltzarrak eta gizarteak azter eta balora dezaten Administrazioak zertan, nola, zertarako, zenbateko kostuarekin eta zer-nolako emaitzekin aurreikusten duen gastatzea herritarrek emandako baliabideak, Gobernuko politikaren esanahia eta zentzua erraz ulertzeko.

Aurrekontuen informazioa bezain garrantzitsua da betearazte informazioa, unean aurkeztu behar dena eta aldizkakotasun egokiarekin, baliabide horiek erabilita lortutako emaitzei buruzko informazioa barne.

OBJETIVO

1. SOPORTE, MANTENIMIENTO Y MEJORA DE LOS SISTEMAS DE INFORMACIÓN DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA CAE Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS EN EL MARCO DE LA ENCOMIENDA DE GESTIÓN GENERAL DEL GOBIERNO VASCO A EJIE
2. PRESTACIÓN Y GARANTÍA DEL SERVICIO DE TRANSPORTE Y DIFUSIÓN DE SEÑALES DE TELECOMUNICACIONES EN EL MARCO DE LA ENCOMIENDA DE GESTIÓN DEL GOBIERNO VASCO A ITELAZPI
3. PRESTACIÓN Y GARANTÍA DEL SERVICIO DE COMUNICACIONES DE LA RED CORPORATIVA ADMINISTRATIVA DEL GOBIERNO VASCO
4. CUMPLIMIENTO DE LA POLÍTICA INFORMÁTICA, COORDINANDO LOS PROYECTOS Y PROCESOS COMUNES U HORIZONTALES Y SU DIFUSIÓN

GRADO DE CUMPLIMIENTO

Esta Memoria es el resultado del compromiso que asumen los responsables de departamentos y entes públicos de rendir cuentas a la ciudadanía por el ejercicio de sus competencias, de informar de las políticas públicas y de sus resultados, y de someterse a cualquier tipo de escrutinio para verificar la consistencia de su información.

Un aspecto central de la transparencia y rendición de cuentas es el que se desarrolla en torno al proceso presupuestario. El buen gobierno reclama que la información presupuestaria que se ofrezca sea relevante, y presentada de forma que resulte inteligible, para que el Parlamento y la sociedad pueda analizar y valorar en qué, cómo, para qué, a qué coste y con qué resultados la administración prevé gastar los recursos que los contribuyentes han puesto a su disposición, para que así sea fácil de entender el significado y el sentido de la política del gobierno.

Tan importante como la información presupuestaria es la información sobre su ejecución que debe ser presentada puntualmente con una periodicidad adecuada, e incluir información sobre los resultados que se han obtenido con esos recursos.



1. EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA ERAKUNDE AUTONOMOETAKO INFORMAZIO SISTEMAK EUSKARRITZEA, MANTENTZEA ETA HOBETZEA, EUSKO JAURLARITZAK EJIE-RI AGINDUTAKO KUDEAKETA OROKORRAREN ESPARRUAN

Sailetan eta erakunde autonomoetan bezero korporatiboaren eredu berri bat ezartzeko lanak bukatu dira.

Hainbat proiektu korporatibotarako software berria ezarri da (Trados, QMatic, Dynamics CRM).

Hainbat software korporatiboren bertsio berrietarako migrazioak gauzatu dira (Red Hat, Absysnet, OBIEE, ArcGIS, ITSM).

Segurtasun-proiektu hauek gauzatu dira:

- Datu-baseen erabiltzaileak kudeatzea
- Funtzio anitzeko gailuen ikuskaritza
- Windows segurtasuneko gertakarien zentralizazioa
- Lanpostuak zifratzea (eramangarriak)

Azpiegituren hornidura automatizatzea/industrializatzea:

- Moodle
- WordPress

Lankidetzak:

-Lankidetzak-tresnen ingurune berria aztertu eta diseinatzea (Exchange 2013, SharePoint 2013 eta Lync 2013).

-Sailen eta erakunde autonomoen beharrezko buruzko aholkularitza

Lanpostuen mugikortasuna ezarri da Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Sare Korporatiboan. Proiektu pilotu hauek gauzatu dira:

- BYOD mugikortasuna
- Eragiketaren ikuspegia

LightHouse zerbitzuen monitorizazio-tresna eguneratu da.

Inprimatze-material suntsikorrek hornitzeko zerbitzua ezarri da.

Backup produktu berri bat ezarri da Documentum-entzat.

Sailetan eta erakunde autonomoetan bezero korporatiboaren eredu berri bat ezartzeko lanak bukatu dira.

Hainbat proiektu korporatibotarako software berria ezarri da (Trados, QMatic, Dynamics CRM).

Backup produktu berri bat ezarri da Documentum-entzat.

1. SOPORTE, MANTENIMIENTO Y MEJORA DE LOS SISTEMAS DE INFORMACIÓN DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA CAE Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS EN EL MARCO DE LA ENCOMIENDA DE GESTIÓN GENERAL DEL GOBIERNO VASCO A EJIE

Finalización de la implantación del nuevo modelo de cliente corporativo en los Departamentos y Organismos Autónomos restantes.

Implantación de nuevo software para proyectos corporativos (Trados, QMatic, Dynamics CRM).

Migración de versión diverso software corporativo (Red Hat, Absysnet, OBIEE, ArcGIS, ITSM).

Realización de proyectos de Seguridad:

- Gestión usuarios de BBDD
- Auditoría dispositivos multifunción
- Centralización eventos de seguridad Windows
- Cifrado puestos de trabajo (portátiles)

Automatización/Industrialización provisión de infraestructuras:

- Moodle
- WordPress

Colaboración:

-Análisis y diseño del nuevo entorno de herramientas de colaboración (Exchange 2013, SharePoint 2013 y Lync 2013)

-Consultoría sobre necesidades de Dptos. y OOA

Implantación de la movilidad de puestos de trabajo en la RCAGV. Realización de pilotos:

- Movilidad BYOD
- Visión de la operación

Actualización de la herramienta de monitorización de servicios LightHouse.

Implantación del Servicio de reposición de consumibles de impresión.

Implantación nuevo producto backup para Documentum.

Finalización de la implantación del nuevo modelo de cliente corporativo en los Departamentos y Organismos Autónomos restantes.

Implantación de nuevo software para proyectos corporativos (Trados, QMatic, Dynamics CRM).

Implantación nuevo producto backup para Documentum.



2. TELEKOMUNIKAZIOETAKO SEINALEAK ERAMAN ETA HEDATZEKO ZERBITZUA EMAN ETA BERMATZEA, EUSKO JAURLARITZAK ITELAZPI SOZETATEARI EGINDAKO KUDEAKETA AGINDUAREN BARRUAN

Telekomunikazio-zentroetan 685 ekipamendu instalatu dira. Honela banatuta: 223 gailu Eitb-ren hedatzerako, 162 RGE1-en hedatzerako, 121 RGE2-ren hedatzerako eta 179 MPE1-MPE2-MPE3-ren hedatzerako. Zenbateko hori kalkulaturakoa baino altuagoa da; izan ere, dibidendu digitala baliatu da aurreko ekipamendua aldatu eta birdoitzeko.

Telekomunikazio-zentroetan azpiegiturako 134 lan egin dira. Zenbateko hori aurrekontuan jasotakoa baino altuagoa da; izan ere, dibidendu digitalarekin bat etorri denez, arruntak baino ekintza gehiago gauzatu behar izan dira.

Banda zabaleko terminalek 271 erabiltzaile izan dituzte.

Bi ikerlan eta proiektu egin dira. Bata, informazio-sistemen ikuskaritzari eta diagnosiari buruzkoa izan da, eta bestea zuntz optikoaren sarearen inbentarioari eta egoerari buruzkoa.

3. EUSKO JAURLARITZAKO ADMINISTRAZIO SARE KORPORATIBOAREN KOMUNIKAZIO ZERBITZUA EMAN ETA BERMATZEA

Administrazio-sare korporatiboaren euskarri diren telekomunikazio-zerbitzuetan eta ahotsa konmutatzeko nodoetan, 24x7 kontrola eta kudeaketa gauzatu da, eta erantzuna eman zaie sortutako gertakari guztiei.

Era berean, nahiz eta bereizita eta datuen konmutazio-nodoak sartuta, sozietate publikoen eraikinetako mantentze-lanak ere egin dira.

Administrazio Sare Korporatiboaren (ASK) barruan sartutako eraikinen azpiegiturak dinamikoki eguneratzeko lanekin jarraituz, ASKren ahots-zerbitzua jarri da bi eraikin berritan, eta integratuta zeuden IP 13 telefonora migratu dira, sail bakoitzaren beharrezan arabera, betiere.

Telekomunikazio-kontratua luzatu egin da (KM/2010/045 kontratua), eta, beraz, 2015eko abenduaren 31ra arte izango dugu zerbitzua.

Administrazio-sare korporatiboaren euskarri diren telekomunikazio-zerbitzuetan eta ahotsa konmutatzeko nodoetan, 24x7 kontrola eta kudeaketa gauzatu da, eta erantzuna eman zaie sortutako gertakari guztiei.

Era berean, nahiz eta bereizita eta datuen konmutazio-nodoak sartuta, sozietate publikoen eraikinetako mantentze-lanak ere egin dira.

2. PRESTACIÓN Y GARANTÍA DEL SERVICIO DE TRANSPORTE Y DIFUSIÓN DE SEÑALES DE TELECOMUNICACIONES EN EL MARCO DE LA ENCOMIENDA DE GESTIÓN DEL GOBIERNO VASCO A ITELAZPI

El número de equipamiento instalado en los centros de telecomunicaciones ha ascendido a 685. Se desglosa en: 223 equipos para el despliegue de etb, 162 equipos para el despliegue del RGE1, 121 equipos para el despliegue del RGE2 y 179 para el despliegue del MPE1-MPE2-MPE3. Cifra superior a la estimada y que tiene como origen el que se ha aprovechado el dividendo digital para cambiar y reajustar equipamiento anterior.

Las obras de infraestructuras en los centros de telecomunicaciones han ascendido a 134. Esta cifra es superior a la presupuestada ya que al coincidir con el dividendo digital ha habido que acometer actuaciones adicionales a las normales.

Los usuarios de equipos terminales de banda ancha han sido de 271.

El número de estudios y proyectos han sido de 2. Uno ha consistido en la auditoría y diagnóstico de los sistemas de información y el otro en el inventario y estado de la Red de Fibra óptica.

3. PRESTACIÓN Y GARANTÍA DEL SERVICIO DE COMUNICACIONES DE LA RED CORPORATIVA ADMINISTRATIVA DEL GOBIERNO VASCO

Se ha realizado la gestión y control 24x7 de los servicios de telecomunicaciones y los nodos de conmutación de voz que soportan la Red Corporativa Administrativa (RCA), atendiendo todas las incidencias producidas.

De igual forma, aunque por separado e incluyendo los nodos de conmutación de datos, se ha realizado el mantenimiento del edificio de Sociedades Públicas.

Continuando con la actualización dinámica de la infraestructura de edificios integrados en RCA, según la necesidad de los Departamentos, se han integrado en el servicio de voz de Red Corporativa Administrativa 2 nuevos edificios nuevos y se han migrado a telefonía IP 13 que ya estaban integrados.

Se ha realizado la prórroga del Concurso de Telecomunicaciones, expediente KM/2010/045, hasta el 31 de diciembre de 2015.

Se ha realizado la gestión y control 24x7 de los servicios de telecomunicaciones y los nodos de conmutación de voz que soportan la Red Corporativa Administrativa (RCA), atendiendo todas las incidencias producidas.

De igual forma, aunque por separado e incluyendo los nodos de conmutación de datos, se ha realizado el mantenimiento del edificio de Sociedades Públicas.



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

4. INFORMATIKA POLITIKA BETETZEA, PROIEKTU ETA PROZESU KOMUN EDO HORIZONTALAK ETA HORIEN HEDAPENA KOORDINATUTA

Domeinu berria abian jartzearekin batera, .eus ezarri da domeinu nagusi gisara Jaurlaritzaren webguneetan.

5. INFORMATIKA POLITIKA BETETZEA, PROIEKTU ETA PROZESU KOMUN EDO HORIZONTALAK ETA HORIEN HEDAPENA KOORDINATUTA

Segurtasuneko ikuskaritzak egin dira Datuak Babesteko Lege Organikoak xedatzen dituen eskakizunak betetzeari dagokionez, bai eta lege hori garatzen duen erregelamenduarenak ere: lehena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hezkuntzako Arlo Funtzionalen; eta bigarrena Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mendeko ikastetxeetan (lagin batean oinarrituta; ikastetxe horiek bereizitako hiru arlotan banatzen dira: araubide orokorreko ikasketak, araubide bereziko ikasketak, eta laguntza-zentroak).

Gobernu Kontseiluaren akordio-proposamena egin da Segurtasun Eskema Nazionalaren antolamendu-egitura eta horri atxikitako eginkizunak zehazteko.

Informatika arloan 139 txosten egin dira guztira (50 baldintza teknikoen pleguei buruz, 87 kudeaketa-aginduei buruz eta 2 beste gai batzuei buruz).

Sailek eta erakunde autonomoek tresna normalizatuen bidez egindako 819 zerbitzu-eskari baino gehiago baliozkotu dira (arlean 90 presazkoak).

Eusko Jaurlaritzaren eta EJIE baltzu publikoaren arteko harreman-ereduari dagozkion informazioa eta tarifak (kudeaketa-gomendio orokorra eta tarifen ebazpenak) argitaratu dira, kudeaketa-gomendioetan oinarrituta.

Sailentzat eta erakunde autonomoentzat zenbait jarduera antolatu ditugu: teknologia berriei buruzko 4 mintegi eta 2 lan-bilera.

Teknologia berriei buruzko Aurrera dibulgazio-aldizkariaren 4 zenbaki argitaratu dira, eta aldizkariaren hamargarren urteurrena ospatzeko liburu bat.

Osgai grafikoak diseinatzeko proiektua handitzen jarraitu dugu, eta informazioaren mantentze-lanak egin ditugu SALE izeneko Software Askearen Bulegoaren webgunean eta sare sozialetan.

4. CUMPLIMIENTO DE LA POLÍTICA INFORMÁTICA, COORDINANDO LOS PROYECTOS Y PROCESOS COMUNES U HORIZONTALES Y SU DIFUSIÓN

Coincidiendo con su entrada en funcionamiento, se ha procedido a implantar el nuevo dominio .eus como el principal en las páginas web del Gobierno.

5. CUMPLIMIENTO DE LA POLÍTICA INFORMÁTICA, COORDINANDO LOS PROYECTOS Y PROCESOS COMUNES U HORIZONTALES Y SU DIFUSIÓN

Se han realizado dos auditorías de seguridad en relación al cumplimiento de las exigencias que establece la Ley Orgánica de Protección de Datos [LOPD] y el Reglamento de Desarrollo de la misma: la primera, al Área Funcional de Educación del Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura, y, la segunda, a los Centros Educativos dependientes del Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura (sobre una muestra; estos Centros se dividen en tres áreas diferenciadas: Enseñanzas de Régimen General, Enseñanzas de Régimen Especial y Centros de Apoyo).

Se ha realizado la propuesta de Acuerdo de Consejo de Gobierno para la definición de la estructura organizativa y roles asignados asociados con el Esquema Nacional de Seguridad (ENS).

Se han emitido un total de 139 Informes (50 sobre Pliegos de Bases Técnicas, 87 sobre Encomiendas de Gestión y 2 informes de otro carácter) en materia informática.

Se han validado más de 819 peticiones de servicio solicitadas por los Departamentos y Organismos Autónomos a través de las herramientas normalizadas (90 de ellas, de carácter urgente).

Se ha publicado la información y tarifas (Encomiendas de Gestión Generales y Resoluciones de tarifas) correspondientes al modelo de relación entre el Gobierno Vasco y la Sociedad Pública EJIE, basado en Encomiendas de Gestión.

Se ha organizado actividades del Gabinete Tecnológico de la DIT para los Departamentos y Organismos Autónomos: 4 Seminarios de Nuevas Tecnologías y 2 Reunión de trabajo.

Se han publicado 4 números del Boletín divulgativo sobre Nuevas Tecnologías Aurrera y se ha editado un libro conmemorando los diez años del boletín.

Se ha continuado ampliando el proyecto de diseño de elementos gráficos, y se ha realizado el mantenimiento de la información en la Web y en las redes sociales de la Oficina de Software Libre denominada SALE.



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

PROGRAMA

5511 ESTATISTIKA

ARDURADUNA

05 OGASUNA ETA FINANTZAK

EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA

PROGRAMA

5511 ESTADÍSTICA

RESPONSABLE

05 HACIENDA Y FINANZAS

DIRECCIÓN DE ECONOMÍA Y PLANIFICACIÓN

HELBURUA

1. Programaren helburuak honako lege hauetan zehaztu dira: apirilaren 23ko 4/1986 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikarena, martxoaren 27ko 4/2002 legeak partzialki aldatuta, Planean, 2014/2017 Estatistika Euskal Planarena, eta, indarrean dagoen Urteko Estatistika Programan.

Horiek horrela, hiru helburu nagusi ezarri dira:

- Estatistika Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeetan ordezkatzeta eta sendotzea.
- Estatistika ekoizpena eta horren zabalpena eta erabilera bultzatzea.
- Eragiteko ahalmena hobetzea eta kalitate-planaren jarraipena.

Horren garapen osoa erakunde autonomoen atalean jaso da.

BETETZE MAILA

1. Programaren helburuak honako lege hauetan zehaztu dira: apirilaren 23ko 4/1986 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikarena, martxoaren 27ko 4/2002 legeak partzialki aldatuta, Planean, 2014/2017 Estatistika Euskal Planarena, eta, indarrean dagoen Urteko Estatistika Programan.

Programaren honen helburuak eta betetze-maila Euskal Estatistika Erakunde Autonomoak haren programan adierazitakoak dira.

OBJETIVO

1. Los objetivos del programa vienen fijados en la Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, modificada parcialmente por la Ley 4/2002, de 27 de marzo, en el Plan Vasco de Estadística 2014/2017 y en el Programa Estadístico Anual vigente.

Así, se han establecido 3 grandes objetivos:

- Representación y consolidación institucional de la Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- Producción Estadística y potenciación de su difusión y uso.
- Mejora de la capacidad operativa y seguimiento del plan de calidad.

Cuyo desarrollo completo queda incluido en el apartado de los Organismos Autónomos.

GRADO DE CUMPLIMIENTO

1. Los objetivos del programa vienen fijados en la Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, modificada parcialmente por la Ley 4/2002, de 27 de marzo, en el Plan Vasco de Estadística 2014/2017 y en el Programa Estadístico Anual vigente.

Tanto los objetivos como el grado de cumplimiento de este programa son los señalados en la del Organismo Autónomo Administrativo Instituto Vasco de Estadística.



PROGRAMA	PROGRAMA
6110 OGASUNA ETA FINANTZAK. EGITURA ETA LAGUNTZA	6110 ESTRUCTURA Y APOYO DE HACIENDA Y FINANZAS
ARDURADUNA	RESPONSABLE
05 OGASUNA ETA FINANTZAK	05 HACIENDA Y FINANZAS
ZERBITZU ZUZENDARITZA	DIRECCIÓN DE SERVICIOS

HELBURUA

1. SAILAREN JARRAIBIDE NAGUSIAK ZEHAZTEA JAURLARITZAK ERABAKITAKO POLITIKAREN ARABERA
2. LEGEETAN EZARRITAKO ERAN EUSKO LEGEBILTZARRARI INFORMAZIOA EMATEA ALDIRO ALDIRO; ETA, BERTAN EGINDAKO INTERPELAZIO ETA GALDEREI ERANTZUTEA
3. OGASUN ETA FINANTZA SAILAREN AURREKONTUEN AURREPROIEKTUA EGITEA ETA AURREKONTU HORI ETA ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOA KUDEATZEA ETA JARRAITZEA
4. LANGILEEN ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA
5. SAILAREN INFORMATIZAZIOA
6. ANTOLAKETA, BALIABIDE ETA BARRUKO JARDUEREN INGURUKO GAJETAN KOORDINAZIO LANAK EGITEA ETA LAGUNTZA EMATEA
7. BERDINTASUNERAKO POLITIKAK BULTZATU ETA KOORDINATU SAILEAN ETA ZUZENDARITZEKIN ETA ARLOEKIN LANKIDETZAN ARITU 4/2005 LEGEA ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO V. PLANA BETEARAZTEKO
8. SAILEKO KOMUNIKAZIO POLITIKA ZUZENDU ETA KOORDINATU

BETETZE MAILA

1. SAILAREN JARRAIBIDE NAGUSIAK ZEHAZTEA JAURLARITZAK ERABAKITAKO POLITIKAREN ARABERA

1. 2014ko ekitaldian Sailak bete beharreko egitekoak ezartzea, horiek bultzatu eta kontrolatzea eta desbideratzeak zuzentzea.

1. Bilera kopurua: 42

2. LEGEETAN EZARRITAKO ERAN EUSKO LEGEBILTZARRARI INFORMAZIOA EMATEA ALDIRO ALDIRO; ETA, BERTAN EGINDAKO INTERPELAZIO ETA GALDEREI ERANTZUTEA

1. Legebiltzarrari erantzutea.

1. Urteko txostenak: 3.

OBJETIVO

1. DETERMINACIÓN DE LAS LÍNEAS GENERALES DEL DEPARTAMENTO EN FUNCIÓN DE LA POLÍTICA FIJADA POR EL GOBIERNO
2. INFORMACIÓN PERIÓDICA AL PARLAMENTO VASCO EN LA FORMA PREVISTA EN LAS LEYES, COMPARECER Y ATENDER A LAS PREGUNTAS E INTERPELACIONES DEL MISMO
3. ELABORACIÓN DEL ANTEPROYECTO DE PRESUPUESTOS DEL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS, GESTIÓN Y SEGUIMIENTO DE SU EJECUCIÓN Y LA CONTRATACIÓN ADMINISTRATIVA
4. ADMINISTRACIÓN Y GESTIÓN DE PERSONAL
5. INFORMATIZACIÓN DEL DEPARTAMENTO
6. COORDINACIÓN Y APOYO EN MATERIAS DE ORGANIZACIÓN, MEDIOS Y FUNCIONAMIENTO INTERNO
7. IMPULSO Y COORDINACIÓN DE LAS POLÍTICAS DE IGUALDAD EN EL DEPARTAMENTO Y COLABORACIÓN CON DIRECCIONES Y ÁREAS PARA EJECUCIÓN DE LA LEY 4/2005 Y EL V PLAN DE IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES
8. DIRIGIR Y COORDINAR LA POLÍTICA DE COMUNICACIÓN DEL DEPARTAMENTO

GRADO DE CUMPLIMIENTO

1. DETERMINACIÓN DE LAS LÍNEAS GENERALES DEL DEPARTAMENTO EN FUNCIÓN DE LA POLÍTICA FIJADA POR EL GOBIERNO

1. Fijar las tareas a realizar por el Departamento en el ejercicio 2014, impulsar y controlar esas tareas y corregir las desviaciones.

1. Número de reuniones: 42.

2. INFORMACIÓN PERIÓDICA AL PARLAMENTO VASCO EN LA FORMA PREVISTA EN LAS LEYES, COMPARECER Y ATENDER A LAS PREGUNTAS E INTERPELACIONES DEL MISMO

1. Atender al Parlamento.

1. Informes anuales: 3.



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

2. Sei hileko txostenak: 4.
3. Bestelako txostenak: 60.
4. Legebiltzarreko galderak eta agiri bidez erantzuteko informazio-eskaerak: 200.
5. Interpelazioak: 6.
6. Ahoz erantzuteko galderak: 16.

3. OGASUN ETA FINANTZA SAILAREN AURREKONTUEN AURREPROIEKTUA EGITEA ETA AURREKONTU HORI ETA ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOA KUDEATZEA ETA JARRAITZEA

2015eko ekitaldiko Sailaren aurrekontuen aurreproiektua landu da; Halaber, Legebiltzarrak aurreproiektu horri egindako zuzenketak bideratu eta erantzun dira.

2013ko ekitaldiko helburuen betetze-mailaren txostenak egin da

2014ko aurrekontuaren exekuzioa kudeatzeari eta kontrolatzeari begira, honako lan hauek egin dira:

- 4.500 kudeaketa-txosten inguru egin dira
- 33 transferentzia, aurreratutako funtsen erregimenaren bitartez (guztira, 1.824 faktura izapidetu dira).
- 14 kontratazio-espeditante: berriak, luzapenak eta izapide aurreratuak.
- Saileko kontratu txiki guztien (100 inguru) zuzeneko izapidea.
- Diru-laguntzen izapidea: izendunak (2) eta zuzenekoak (3).
- Aurrekontuaren aldaketak: 15 kreditu-transferentzia egin dira.
- Ejeie, S.A.rekin egindako kudeaketa-gomendio orokorra izapidetu da, baita berariazko 6 ere.

Hazi Fundazioarekin egindako kudeaketa-gomendio bat izapidetu da

- Aurrekontuak exekutatzeari buruzko eta hirugarrenetik eragiketari buruzko txostenak egin dira, aldiro-aldi.

4. LANGILEEN ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA

391 hornidurako plantila kudeatu da.

Kudeaketa horretan pertsonaleko arloan 592 espeditante sortu dira. Euren artean, azpimarratzekoak dira Lanpostu Zerrenda aldatzeko 4 espeditante eta Sailean hutsik gelditu diren lanpostuak betetzeko, bai zerbitzu eginkizun bidez bai behin-behineko funtzionario bidez, izapidetu diren 35 espeditanteak.

2. Informes semestrales: 4.
3. Otros informes: 60.
4. Iniciativas parlamentarias para su respuesta por escrito: 200.
5. Interpelaciones: 6.
6. Preguntas para su respuesta oral: 16.

3. ELABORACIÓN DEL ANTEPROYECTO DE PRESUPUESTOS DEL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS, GESTIÓN Y SEGUIMIENTO DE SU EJECUCIÓN Y LA CONTRATACIÓN ADMINISTRATIVA

Se ha elaborado el anteproyecto de presupuestos del Departamento del ejercicio 2015. Así mismo, se ha procedido a tramitar y contestar a las enmiendas parlamentarias realizadas a dicho proyecto.

Se ha elaborado el informe de grado cumplimiento de objetivos correspondientes al ejercicio 2013.

Respecto a la gestión y control de la ejecución del presupuesto del ejercicio 2014 se ha realizado:

- Tramitación de unos 4.500 documentos de gestión.
- 33 transferencias a través del régimen de fondos anticipados, con un total de 1.824 facturas tramitadas.
- 14 expedientes de contratación: nuevos, prórrogas y tramitaciones anticipadas.
- Tramitación contratos menores del Departamento: (aprox.100).
- Tramitación de subvenciones: nominativas (2) y directas (3).
- Modificaciones presupuestarias: se han realizado 15 transferencias de crédito.
- Tramitación de la encomienda de gestión general con EJEIE, S.A., más 6 encomiendas de gestión específicas.

Tramitación 1 encomienda de gestión con Fundación Hazi.

- Se han elaborado periódicamente informes de ejecución presupuestaria y operaciones con terceros.

4. ADMINISTRACIÓN Y GESTIÓN DE PERSONAL

Se ha gestionado una plantilla de 391 dotaciones.

En su administración, se han generado 592 expedientes en materia de personal. Entre ellos, cabe destacar 4 expedientes en modificación de la Relación de Puestos de Trabajo y 35 procedimientos para la cobertura de las vacantes generadas en el Departamento a lo largo del año, mediante comisión de servicios y nombramientos de personal funcionario interino.



E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.

HAAE eta beste erakunde batzuen bitartez, 212 ekintza baimendu dira langileak prestatzeko eta birziklatzeko.

5. SAILAREN INFORMATIZAZIOA

1. Informatika ekipamenduaren kudeaketa.
 1. Mugatutako aldiko motako alokairua (renting): 454.
 2. Sailen jabetzapekoak diren ekipoen mantentze lana: 88.
2. Dauden aplikazioak ustiatu eta mantentzea: 60.
3. Erabiltzaileari laguntza ematea.
 1. Ogasun eta Finantza Sailetik erabiltzaileak: 388. 8
4. Sarearen kontrola eta kudeaketa.
 1. Sareari lotutako erabiltzaile kopurua: 450.
5. Instalazioak: aplikazioak, zerbitzuak, sarbideak: 100.
6. Kudeaketa-gomendioak: 6.

6. ANTOLAKETA, BALIABIDE ETA BARRUKO JARDUEREN INGURUKO GAIIAN KOORDINAZIO LANAK EGITEA ETA LAGUNTZA EMATEA

1. Sailaren jarduera garatzeko beharrezkoak diren toki, ekipamendu (informatikoa izan ezik), ibilgailu eta gainerako baliabide materialen beharrei erantzutea.

- Langile zerrenda: 329

-Ibilgailuen parkea. Horien erabilera eta gastua kontrolatzea.

- Garajeko aparkalekuen alokairua kudeatzea: 9

2. Hizkuntza ezagutza eta gaitasuna areagotzeko ikastaroak:

